

Donostiar haien garaia...

Victoriano Iraola Aristigieta (1841-1919)

Pasai Donibanen jaio bazen ere, bere bizitza osoa Donostian egin zuen Victoriano (edo Biktoriano, berak batzutan idazten zuen bezala) Iraolak. Catalina Alvarez azpeitiarrarekin ezkondu eta bi alaba izan zituzten, Dolores eta Maria. Idazlan batzutan *Churi eta Sei* goitizenak ere erabili izan zituen inoiz Iraolak.

Lanbidez inprentari izan zen. Legazpi kaleko bosgarrenean izan zituen etxebizitza eta lantegia. Inprimategiko tresneria mugiarazteko astoa erabiltzen zuen barrunbeheko patioan bueltaka. *Rosita* izeneko asto emea omen zuen. Eraman oneko gizona izan behar zuen, umoretsu eta irrizalea. Bigarren karlistadan, zapelgorriek Mendizorroztako gainatik botatako bi granada sartu omen zitzaizkion etxera, baina lehertu ez. Iraolak jaso, eguna gainean idatzi eta armarioan gorde omen zituen oroigarri. Langilea eta txorakeria gutxikoa omen zen, hala ere. Paseoan ibiltzerik ez zuen nahi izaten, inork alfertzat har ez zezan.

Denetatik eta asko idatzi zuen Iraolak, beti euskaraz: poemak orduko euskal aldizkari gehienetan (*Euskal-Erria*, *Euskalzale*, *Ibaizabal*, *Revista Euskara de Navarra*, *Euskal-Esnalea*, *Eskuegundiya...*); antzerkia *Bi ichubak* (1884), *Petra chardiñ saltzallia* (1888), *Onentzaro gaba* (1894), *Ishkiña Mutrikun* (1909). Politenak agian bere ipuinak dira; Aita Zavalak *Auspoa* sailean bildu zituen *Oroitzak eta beste ipui asko* izenaz. Azalpen hauek liburu horretatik hartuak, eta Iraolaren biloba Ana Balanzategi emandakoak dira.



Gainera, marrazkilari on zen Iraola. Orri honetan bertan aurretik Iraolaren bi erretratu argitaratu ditugu: Bilitxena bata, Cayetano Sanchez Irurerena bestea. Iraolak berak sortutako *El Thun Thun* astekarian marrazki eta komiki asko argitaratu zituen.

Gauza asko egin zituen Iraolak bere bizitzan. *La Unión Artesana* elkarteko sortzaileetako bat izan zen. Donostiako eguneko tanborrada bere etxe aurrean gelditzen zen. Hungariako pertzagile edo kaldereroen festan euskaraz gordetzen den kantu bakarraren hitzak bereak dira («Begi urdin bat, begira dago...»); musika, noski, Raimundo Sarriegirena. Sari asko irabazi zituen orduko lore-jokoetan...

Ez hori bakarrik: urte luzetan udaletxeko zinegotzi izan zen. Donostia errege-erreginen udaleku zen garaietan, Iraola errepublikazale eta autonomista izan zen! Udaletxean beti borrokatu zen euskara eta euskal ohiturak gordetzen (sokamuturra, esate baterako). Alderdi Ederren orain ikusten ditugun tamarindoak ekarri eta bertan jartzen ahalegindu zen, besteak beste; Pariseko 1900eko Erakusketa Unibertsalean ezagutu omen zituen zuhaitz horiek.

Lana ugari egina utzi zuen Iraolak 1919ko irailaren 19an hil zenean Donostiako bere etxean, 78 urte beteak zituela.

GOTZON EGIA

Argazkia: Ana Balanzategi andreak utzitakoa; orain arte inoiz argitaratu gabea.